



San Adrianetik “Lizarrate” mendirantz doan bidea hartuko da. Mendi honen azpian San Adriango tunela dago. Tunel hori gurutzatuta, erdi-aroko galtzadatik jarraituko dugu. Bideak ezkerretara egiten du, baina guk eskuinetara hartuko dugu. Aldapa gogorra da. Bideko seinaleak jarraituz kalbarioko lehen gurutzeak ikusiko ditugu. “Mandobide”ra iritsiko gara eta Aizkorrira iristeko azken zatiari ekingo diogu (1.528 m).

Urbiarako bidea hartuko dugu eta Arbelarreko txaboletara iritsi baino pixka bat lehenago gorantz doan bidea hartuko dugu Andreatzeko pasabidera. Ondoren bidegurutze batean izango gara eta zuzen jarraituko dugu Oamendi mendiaren ertzetik joanez, Ormakikoko menditontorreraino.

Ondoren, Zeraingo bidea hartuko dugu, balizaz seinalizatutako bide bat jarraituz. Hemendik, orain dela gutxi egin duten pista batera jaitsiko gara. Aska baten parera iristen garenean, eskuinera doan alanbrez hesitutako pista bat hartuko dugu. Hortik bigarren aska baten parera iritsiko gara eta eskuineko bidetik, Urruzti baserriaren ondotik, Barbarisetik Zegama eta Zerain lotzen dituen errepidean izango gara. Ostatuaren atzeko aldetik jarraituko dugu, hormigoizko pista batetik. Hemendik, Segura eta Mutiloa lotzen dituen errepidera iritsiko gara. Segurarantz doan errepidea hartuko dugu eta ezkerretara hartuko dugu Segurako “Santa Engrazia” auzora iristeko.

Azken aldapari ekingo diogu. “Zelaundieta zarra” eta “Zelaundieta berri” baserrietatik pasako gara eta Idiazabalgo Urbizu auzora iritsiko gara. Ondoren, Muxika baserrietik Gudugarreta auzora iritsiko gara, Anzizar auzotik herrira sartu eta hirigunea gurutzatuz Beasaingo Bideluze plazan amaituko dugu bira, Aizkorri Mendizale Elkartean.